

# GURE IRAKURGELA

## BAKARDADE OSAGARRIAK

Manu Lopez Gaseni

**W**endy Orr idazle kanadiar beteteranoa ezaguna zen gure artean, duela urte batzuk argitaratutako "Nimen uhartea" eleberriatatik. Oraingoan dakarren liburua, "Noeren ontzi bat parkean", 1994an argitaratu zen ingelesez, eta hurrengo urtean libururik onenaren saria jaso zuen "Australian Children's Book Council Awards" direlakoen barruan, eta gerora hizkuntza askotara itzulia.



**Liburua:** "Noeren ontzi bat parkean"  
**Egilea:** Wendy Orr.  
**Itzultzailea:** Iñaki Zubeldia.  
**Irudiak:** Kerry Millard  
**Argitaletxea:** Ibaizabal, 2006.

Hiri handi anonimo bateko «eraikinik garalenetako (...) azken solairuko apartamentuetako batean bizi zen Sofia», oso bakarrik sentitzen zen neska bat. Neba biki jaioberriek betetzen zuten gurasoen denbora gehiena, eta Sofiak leihotik ikusten zuen parke handi batera jolastera joatearekin egiten zuen amets.

Hiriko parke handi hartan, berriz, «munduko animalia-denda guztien artean handiena, bitxiena eta miresgarriena» zegoen. Jabeak Noe deiturako senar-emazte zaha-

rrak ziren eta, hortaz, animalia-dendaren izena gehiegi pen-tsatu beharrik ez zuten izan: "Noeren Ontzia". Senar-emazteak zeregin harekin pozik bizi baziren ere, halen zoriona ez zen betea; izan ere, «gauero-gauero, Noe jaunak eta andereak ezinezko gauza bat desiratzen zuten: bilobak edukitzea».

Elkarren ondoan bizi izan arren elkarren berririk ez duten pertsonak oso ohikoak dira hiri handietan, baina Sofiak, bere urtebetzearen aitza kian, Noeren Ontziari bisita egitea lortu

zuen, eta handik aurrera Noe senar-emazteekiko harreman gero eta estuagoa egin zuen. Bakoitzak, finean, bere hu-tsunea betetzea lortu zuen: «Nork esan du ezinezko desirak ez direla betetzen?».

Istorioaren garapena oso ondo eramanda dago, eta une hunkigarriak ditu. Zalan-tzak ditugu, ordea, abiapuntu gisa erabiltzen den intertestua, Noeren arkaren istorioa alegia, gaur eguneko umeel ezaguna zaien.

Jatorrizko izenburuan dagoen hitz jolasa, «Ark in the park», ezinbestean galdu egiten da itzulpenean. Hala ere, "arka" oihartzun handiko hitza aukeratuko genuen behar bada.

Eskertzekoa litzateke, orobat, hau bezalako liburu onen itzulpenak pixka bat gehiago zaintzea, irakurle guztien onerako.